

## XXXIX NAFARROAKO KIROL JOKOAK - HERRI KIROLAK 2026

Martxoaren 1ean Nafarroako Herri Kirol Jokoei hasiera emanen zaie Berriozarko kiroldegiko frontoian, goizeko 10:30etatik aurrera.

Herri kirol Joko hauek martxoaren 29a arte luzatuko dira, guztira 4 jardunaldi eta Finala jokatuko direlarik.

1.Jardunaldia: Berriozarren, martxoaren 1ean (10:30) Kiroldegiko frontoian

2.Jardunaldia: Atarrabian, martxoaren 8an (10:30) Paz De Ziganda Ikastolako frontoian

3.Jardunaldia: Altsasun, martxoaren 15ean (10:30) Ioartia Plazanedo Burunda pilotalekuan

4.Jardunaldia: Arbizun, martxoaren 22an (10:30) Kiroldegian

5.Jardunaldia (FINALA): Baztanen, martxoaren 29an (11:00) Herria zehaztu gabe

Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuarekin batera urtero antolatzen diren Herri Kirol Joko hauetan hiru kategorietako neska-mutilek hartzen dute parte: **kimu mailakoak** (11-12 urte), **haur mailakoak** (13-14 urte) eta **kadete mailakoak** (15-16 urte). Taldeak mistoak izan ohi dira.

Haur eta Kadete mailetan bi txapelketa egiten dira: **Sokatira** eta **Proba Konbinatua** (lokotx biltzea, zaku lasterketa, txinga-erute, korrika eta arpana modalitateak biltzen dituena).

Kimu mailakoek berriz, proba konbinatuko txapelketa bakarrik izanen dute (arpana modalitatea ez da sartzen).

Ondorengo Taulan parte hartzaileak azaltzen dira:

<b>Kimuak (2014-2015)</b>	<b>Haurrak (2012-2013)</b>		<b>Kadeteak (2010-2011)</b>	
<b>KONBINATUA</b>	<b>KONBINATUA</b>	<b>SOKATIRA</b>	<b>KONBINATUA</b>	<b>SOKATIRA</b>
Andra Mari 1	Andra Mari 1	Andra Mari 1	Andra Mari	Andra Mari
Andra Mari 2	Andra Mari 2	Andra Mari 2		
Andra Mari 3				
Antsoain A	Antsoain	Antsoain	Antsoain A	Antsoain A
Antsoain B			Antsoain B	Antsoain B
Antsoain C				
Antsoain D				
Araxes			Araxes	
Basaburua A	Basaburua	Basaburua	Basaburua A	Basaburua
Basaburua B			Basaburua B	
Berriozar A	Berriozar	Berriozar	Berriozar	Berriozar
Berriozar B				
Igantzi				
Iñigo Aritza 1	Iñigo Aritza	Iñigo Aritza		Iñigo Aritza
Iñigo Aritza 2				
Joakin Lizarraga A				
Joakin Lizarraga B				
Joakin Lizarraga C				
Paz De Ziganda A	PdZ	PdZ		
Paz De Ziganda B				
Paz De Ziganda C				
<b>21</b>	<b>7</b>	<b>7</b>	<b>7</b>	<b>6</b>

## KATEGORIA BAKOITZEAN EGIN BEHARREKO PROBAK ETA JOKATZEKO SISTEMA

### **KIMUAK**

#### **PROBA KONBINATUKO LANAK (3 txanda):**

PROBA	Partaide kopurua	EGIN BEHARREKO LANA
Lokotx biltzea	1	8 kozkor, metro bateko tartez jarrita
Txingak	1	80 m. 3 kg.ko txingekin (2 joan-etorri 20 metrotako zatian)
Zakulariak	3	80 m. 6 kg.ko zakuarekin (bakoitzak buelta bat)
Korrikalaria	1	160 metro (bi buelta plazari)

- Lau jardunaldi eta Finala jokatu dira. Finalean lau taldek hartuko dute parte, 4 jardunaldietako denborak gehituta, denborarik onena duten lau taldeek hain zuzen.

### **HAURRAK**

#### **PROBA KONBINATUKO LANAK (3 txanda):**

PROBA	Partaide kopurua	EGIN BEHARREKO LANA
Lokotx Biltzea	1	10 kozkor, metro bateko tartez jarrita
Txingak	1	80 m. 5 kg.ko txingekin (2 joan-etorri 20 metrotako zatian)
Zakulariak	3	80 m. 10 kg.ko zakuarekin (bakoitzak buelta bat)
Korrikalaria	1	160 m. (2 itzuli)
Arpana	2	70 m.ko 2 korte

- Lau jardunaldi eta Finala jokatu dira. Finalean lau taldek hartuko dute parte, 4 jardunaldietako denborak gehituta, denborarik onena duten lau taldeek hain zuzen.

#### **SOKATIRAKO PISUA: 480 kg.**

- Multzo bakarra izanen da. Bost jardunaldi jokatu dira liga sistema bidez

### **KADETEAK**

#### **PROBA KONBINATUKO LANAK (3 txanda):**

PROBA	Partaide kopurua	EGIN BEHARREKO LANA
Kolotx Biltzea	1	12 kozkor, metro bateko tartez jarrita
Txingak	1	60 m. 10 kg.ko txingekin (2 joan-etorri 15 metrotako zatian)
Zakulariak	3	80 m. 13 kg.ko zakuarekin (bakoitzak buelta bat)
Korrikalaria	1	240 m. (3 itzuli)
Arpana	2	70 zm.ko 3 korte

- Lau jardunaldi eta Finala jokatu dira. Finalean lau taldek hartuko dute parte, 4 jardunaldietako denborak gehituta, denborarik onena duten lau taldeek hain zuzen.

#### **SOKATIRAKO PISUA: 540 kg.**

- Multzo bakarra izanen da. Bost jardunaldi jokatu dira liga sistema bidez